

LEGAZPI / Hemeroteka zerbitzua irekiko dute liburutegian

Bihartik aurrera sei eguneko egunkariak irakurtzeko aukera edukiko dute herritarrek

M. LUKI

Legazpiko Udal Liburutegiak bihartik aurrera hemeroteka ipiniko du martxan. Modu horretan, legazpiarrek goizeko ordutegian sei egunkari ezberdin irakurtzeko aukera izango dute, tartean Goierriko Hitza.

Edonork izango du, beraz, liburutegira joan eta goizeko ordutegian (11:00etatik 13:00etara) eguneko egunkariak ikuskatzeko aukera. Gainera goiz partean joan ezin duenak arratsaldean ere zerbitzu hori jasotzeko aukera izango du (16:00etatik 20:00etara). Udal liburutegiak eskaintzen duen zerbitzua erabiltzeko ez da beharrezkoa bazkide izatea.

Bestetik, eguneko egunkariez gain, liburutegian beste 90 aldizkari eta liburuxka ikusteko aukera izango dute irakurleek, hemeroteka zerbitzu berria dela-eta. Bazkide egin nahi dutenek, gainera, aldizkari eta liburuxka zein bestelako dokumentuak (liburuak, bideoak, musika...) etxera maileguan eraman ahal izango ditzuzte.

Bihar eta etzi liburutegira bisitan joango dira bost urteko haurrak. Bisita horietan hurrek liburutegia ezagutuko dute, eta bertan aurkitu ditzaketen liburu eta dokumentu motak erakutsiko dizkiete. Horretaz gain, liburutegiak egiten dituen hainbat ekintzen berri ere emango zaie herriko txikienei.